



## 5. unitatea - Notebook – Ien sakontzen.

---

### 5.1.- Tamaina txikiagotu, Klonatu, Biratu, Ekarri aurrerago.

---

Ireki **Notebook** programa, Smart Board-en ADIarekin batera datorrena.




Hautatu **Galeria** ; arbelaren ezker aldean edo eskuin aldean dagoena.

Ireki itzazu bata bestearen ondotik Galeriako karpetak Foord-era iritsi arte **Essentials for Educators – People and Culture - Health - Food**




Hauta itzazu eta arbelera arrastatu honako objektu hauek:

- platano bat
- sagar bat
- gerezi batzuk


- eta Piperraren (Pepper) azpian dagoen platera



Egin itzazu honako ekintza hauek:


- Hauta ezazu **platanoa**. Klika ezazu  adierazlearen gainean eta arrasta ezazu txikiagotzeko, platerean sartzeko tamainara ekarri arte. Hauta ezazu berriro platera, saka ezazu ikono honen gainean  eta hauta ezazu **Klonatu**.
- Hauta itzazu orain **gereziak**, txikitu itzazu eta erabil ezazu **klonatu** aukera bost aldiz. Saka ezazu klonatutako gerezi bakoitzaren gainean eta biraraz itzazu adierazle honen bidez  harik eta postura desberdinak lortzen dituzun arte.
- Hauta ezazu **sagarra** eta txikitu tamaina.
- Hauta itzazu platanoak, gereziak eta sagarra. Arrasta itzazu eta ipin itzazu **platerean**.


Honako honen antzeko zerbait geratuko zaizu:






## Nota

Arrastatu eta plateraren barruan ipintzen saiatzean gerta dakizuke irudi horiek justu-justu plateraren azpian geratzea; alegia, ezkutaturik eta ezin ikusi direla. Hala gertatzen bazaizu, hauta ezazu berriro platera eta klika ezazu  indikadorea eta beste aldi batzuetako menu ezaguna irekiko da. Hauta ezazu **Ordena** eta **Eraman atzera**. Oraingoan iritsi dugu iritsi nahi genuen helburua. Zer egin dugu, egia esan? Bada, platera gainerako objektuen azpian ipini (atzera eraman dugu)







Alderantziz ere egin genezakeen; hau da, beste objektuak, frutak hautatu, frutetako batean klikatuta eta **Ctrl** tekla sakatuta beste gainerako objektuak hautatu. Fruta guztiak hautatutakoan klik egin beharko genuke  indikadorean eta **Ordena** eta **Ekarri aurrera** hautatu behar genituzke. Hartara, frutak plateraren aurrean kokatuko lirateke eta honen aurreko pausoarekin eskaini den efektu bera eskainiko litzateke, baina, horrez gain, beste zailtasun bat ere erantsiko litzaioke: ez dugu ahaztu behar **Ctrl** tekla sakatzea, arbelean errotulagailuen eskuinean dagoena.

Beste gauza bat ere probatu behar dugu: hauta ezazu platera eta alda ezazu beste toki batera. Zer gertatu da? Gauza guztiak plateretik erori zaizkizu, ezta? Zer egingo zenuke platera mugitzean platera bera eta bertan dagoen guztia batera mugitzea lortzeko?

Halaxe da; ikasitakoaz baliatu: platera eta frutekin multzo bakar bat osatu, edo, bestela esan, **Elkartze** bat egin.

Ipin ezazu berriro platera lehen zegoen tokian eta egin ezazu saguaz errektangelu bat platera eta platerean dagoena biltzen dituela. Honako honen antzeko zerbait geratuko zaizu:



Hautu ezazu  marka eta hauta itzazu gero **Elkartzea** eta **Elkartu**.

Mugi ezazu orain platera. Zer moduz? Guztia ongi? Animatuko zinateke eta beste ariketa bat egin laguntzarik gabe?







## **5. unitatea.- Notebook - IIan sakontzen.**

---

5.2.- Orri-sailkatzailea eta Smart Board-en galeria


---

Pantailaren eskuin aldeari erreparatzen badiogu (ezker aldean egotea ere gerta liteke –begiratu **Eraman beste aldera** apartatura beheago) hiru solapa ikusiko ditugu identifikatzaile hauekin: **Orri-sailkatzailea**, **Galeria** eta **Eranskinak**.

**Orri-sailkatzailea:** erabiltzen edo sortzen ditugun objektuekin osatzen ditugun orrialdeen sailkatzaile txikia da. Eduki ditzakegu prest hainbat orrialde, gainean sakatuta behin eta berriro atzitzeko moduan.

**Galeria:** Galeria fitxaren gainean klikatuta plantilla, irudi aurrez diseinatu edo Flash eduki sorta bat agertuko zaigu, bi paneletan ikus dezakegun sorta. Goiko panelean karpeten deitura ikusten dugu, behekoan, aldiz, osatzen duten irudiak ikusiko ditugu.

**Eranskinak:** Fitxa honetan guk erabili ohi ditugun eta, eskurago edukitzeko, hemen gorde ohi ditugun fitxategietarako lasterbideak edo Webguneetarako loturak daude.




Behe aldean eskuinean ikusiko dugu badela hor aukera bat **Automatikoki ezkuta** dioena. Markatzen baldin badugu eskuineko paneleko irudiak desagertuko dira, eta arbelean toki handiagoa izango dugu; hiru kategorietako bat hautatuz gero edo gainean klikatuz gero berriro agertuko da, ordea.

Ocultar automáticamente


### Eraman beste aldera

Smart Notebook arbelaren softwarea erabiltzen hasten garenean, hala lehenetsirik dagoelako, ezker

aldean menua agertzen zaigu: **Orri-sailkatzailea**, **Galeria**, **Eranskinak** eta **Tresnak**. Beheraxeago, berriz, honako hau bezalako  gezi bikoitza. Arbeleko edukia hobeki ikusteko toki beharrea baldin bagaude, saka dezakegu ikono honetan eta menua eskuin aldera aldatuko da. Hasierako posizioa itzultzeko aski da ikono berori berriro sakatzea.

## Orri-sailkatzailea

ADIaren softwarea irekitzen dugunean ikusten dugu arbela zuri agertzen zaigula, eta ezker aldean **orri-sailkatzaileak** ere uneko orria erakusten duela txikiagotua, hori ere zuri. Arbelean idazten edo marrazten hasi nahi baldin badugu errotulagailu egokia hautatu besterik ez dugu. Ohartuko gara nola, guk arbelean zer edo zer egin ahala, orri-sailkatzailean ere ikus daitekeen guk egindakoaren kopia txikiagotu bat.


Beste orri zuri bat erantsi nahi baldin badugu, tresna-barran  **Txertatu orrialde hutsa** ikonoa hautatu behar dugu; tresna-menuan edo ezker aldean egongo da, eta berehala ikusi ahal izango da **orri-sailkatzaileak** bi orri erakusten dituela. Orain bigarrena dago aktibatuta, beraz, egiten dugun oro orri horretan jaso eta azalduko da. Lehen orrira itzuli nahi izanez gero, **orri-sailkatzaileko** orri txikiagotuan, lehenengo tokian dagoen orrian, sakatu besterik ez dugu, eta berriro ikusiko dugu edukia, eta erantsi, ezabatu,..., ahal izango dizkiogu berriro ere elementuak orrialde horri.

Hala, honen metodo errazaren bidez erantsi ahal izango ditugu nahi adina orrialde eta ibili ahal izango gara orrialde batetik bestera guk nahi dugun orrialde jakin hori sakatu hutsarekin.

## Galeria



**Galeria** fitxan klikatuta hainbat plantilla, irudi eta Flash eduki sortaren edukia atzitu dugu. Goiko aldean hiru kategoria erakusten dira: **Profesionala, Hezkuntza** eta **Nire edukiak** (azken hau hutsik). Kategoria eta azpikategoria batzuetan eta besteetan nabigatzen baldin badugu ikusiko dugu behe aldean ikusten direla irudi batzuk. Irudi horiek hautatu eta arbeleraino arrastatu ahal izango ditugu.



Gai bat hautatzen dugunean, behe aldean lau kategoria desberdin agertzen zaizkigu eta kategoria horietako bakoitzeko elementu kopuruaren berri ere bai; materia den ala ez, hala izango ditu gauza gehiago edo gutxiago ere.

Irudian ikus dezakegun bezala kategoria horiek honako hauek dira:

1. **Marrazkiak eta atzeko planoak**
2. **Interaktiboa eta Multimedia**
3. **Jarduera lektiboak**
4. **Notebook artxiboak eta orrialdea**

Kategoria bat hautatzean agertzen diren irudiei behar bezala erreparatzen badiegu, ohartuko gara horietako batzuek tolestuta daukatela goiko aldeko eskuin aldean eta beste batzuk, aldiz, ez. Zer esan nahi du horrek?

Tolestutakoak **plantillak** dira eta tolestu gabeak, berriz, **irudiak**.



Desert scene

**Plantillak** atzeko irudiak dira; arbel osoa hartzen dute, orrialde berria irekitzen dute eta ezin aldatu dira. Alegia, beren horretan hartu behar dira. Plantilla ezabatu nahi izanez gero, orrialde osoa ezabatu behar da **Orri-sailkatzailean**. Kategoriako **Direktorio nagusian** daude.




Chick

Arrastatuta arbelera eramaten ditugun **irudiak**, ordea, alda daitezke: tamaina, birarazi, eta horrez gain, ezabatu, klonatu, kokagunea finkatu, hiperesteka bati atxiki eta gardentasun maila desberdinak lortu. Hori guztia irudiaren gainean saguaren edo arkatzairen eskuin botoia sakatuta egin dezakegu. **Irudiak** apartatuaren barruan daude.



Blood and Circulation

Honako ikono hau  duten beste irudiak, berriz, **Flash** edukiak dituzten irudiak dira, arbelera arrastatzean animazio bat edo jarduera interaktibo bat erakutsiko digutenak. Alda dakieke tamaina, birarazi ere bai, irudiekin egin daitekeen bezalaxe. **Interaktiboak eta Multimedia** apartatuan daude.



Plants and Animals

Ikasgai prestatua da hainbat Notebook orrialdekoa. **Notebook Artxiobak eta Orrialdeak** apartatuan daude.


Agregar/Importar

- Formación
  - Administración y evaluación
  - Áreas
  - Ciencia y tecnología
    - Animales
      - Anfibios
      - Aves
      - Dinosaurios
      - Invertebrados


Clasificador de páginas

Galería


Anexos




Desert scene




Lake scene



Mountain scene



Rain forest scene



**Erantsi irudiak, flashak, bideoa, ...**



Gehitu daitezke, gure ordenagailuak gordeta dauzkagun argazkiak, irudi eskaneatuak, flash marrazki eta animazioak. Horretarako ezarpeneko menuan **Txertatu** hautatu behar dugu eta nahi dugun aukera egin gero. Ondoren irudia, bideoa, flasha, eta abar bilatu gure disko gogorrean, CDan edo DVDean, eta hautatu. Gure arbelari erantsiko zaio eta **Galeria**tik bertatik hartua balitz bezalaxe lan egin ahal izango dugu berarekin.



## Para recordar

Izan ezazu gogoan Notebook-en softwarearen bidez arbelean nahiz ordenagailuan lan bat egiten duzun aldi oro, gorde dezakezula lan hori, berreskuratu (ireki) noiznahi, dela zabaltzeko, dela aldatzeko, eta abar, Open Office, Word edo Power Point-ez egindako beste edozein dokumenturekin egingo zenukeen bezalaxe. Aski duzu **Ireki**, **Gorde** edo **Berria** komandoak erabiltzea.

## Dokumentua berria, Ireki dokumentua eta Gorde dokumentua

Hori guztia menuko **Fitxategia** aukeraren bidez egin dezakegu edo tresna-barran ageri den ikonoetako bat hautatuta.



	<p><b>Fitxategia – Berria</b> hautatuta lan-saio berria hasiko dugu. Beharrezkoa da aurreko lan-saioa gordetzea, baldin eta jaso nahi badugu; bestela, galduko da.</p>
	<p>Ikono honetan sakatuta edo <b>Fitxategia – Ireki</b> hautatuta <b>.xbk</b> luzapeneko fitxategi bat irekiko dugu (8.0, 9.0 eta 9.1 bertsioez egina baldin bada) edo <b>.notebook</b> luzapeneko, lehenago gordea genuena (9.5, 9.7 eta 10.0 bertsioez egina baldin bada).</p>
	<p>Ikono honetan sakatuta edo <b>Fitxategia – Gorde honela</b> hautatuta unean pantailan dugun lana gordeko dugu. <b>.notebook</b> luzapena emanda gordeko du; dena dela, <b>.xbk</b> luzapena ere eman geniezaioke, hartara 8.0, 9.0 edo 9.1 bertsioak besterik instalaturik ez duten ordenagailuetan ere ireki ahal izan dadin. Lehenagoko formatu batean gordez gero, gerta liteke beste bertsioek ez dituzten funtzio batzuek behar bezala ez funtzionatzea.</p>